

azpeitian zer?

udal aldizkaria

184. zenbakia

LAPATX: AMAIERAREN HASIERA

Zabortegia behin betiko ixteko pausoak abian jartzeaz gain, ingurumena zaintzeko neurriak hartu dira



DENON ARTEAN

Auzoetako bizilagunekin izan dira udal ordezkariak



HERRI HEZITZAILEA

Talde eta eragile desberdinen balioak ezagutzeko azterketa osatu dute



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 5, 11, 18, 22, 23, 28 eta 31

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 6, 8, 9, 14 eta 17

ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 4, 7, 13, 20, 24, 29 eta 30

BERISTAIN

Urbite auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Abenduaren 3, 10, 15, 16, 21 eta 27

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Abenduaren 1, 2, 12, 19, 25 eta 26

ALE HONETAN ZER?

Azpeitia ezagutzen	2
Euskaraldia	3
Denon artean	4
Herri hezitzailea	6
LAPATX	8
Ingurumena	12

- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
- Egilea: Prentsa bulegoa
- Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- Argazkiak: Arnaitz Rubio Aprea eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
L.G.: SS - 1148/91

AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN

INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!



HERRI HARRESIA

Herria lapurreta eta erasoetatik babesteko harresiz inguratu zuten. Harresiak lau ate zituen: Kalegoen, Barrenportal, Enparan eta Parrokiako sarrerak. Ate batzuen ondoan dorretxoak zeuden, herria zaindu eta babesteko. Hasiera batean herriak hiru kale zituen: Erdikalea, Enparan kalea eta Elizkalea.



EUSKARALDIA



HAMABIGARREN EGUNA DA GARRANTZITSUENA

EUSKARALDIAK EMAITZA BIKAINAK UTZI DITUEN ARREN AZPEITIAN, UDALAK ARIKETA SOZIALA LUZATZERA GONBIDATZEN DITU HERRITARRAK

Euskararen erabilera sustatu. Hori da Euskaraldiaren xede nagusia, eta hori da lortu duena 11 egunetan zehar. Abenduaren 3ko Euskararen Egunean eman zitzaion amaiera Euskaraldiari, Sanagustin Kulturgunean egindako ekitaldiarekin.

Hamaika egunak igarota, Euskaraldiaren balorazio positiboa egin dute arduradunek, eta "ariketa sozialak euskararen erabileran eragina izan duela" adierazi dute. Hala ere, Euskaraldia luzatzeko deialdia egin du Udalak.

Josu Labaka Euskara Batzordeburuak azaldu duenez, Azpeitia euskararen arnagune garrantzitsuenetarikoa: "Azpeitia bere tamainako herririk euskaldunenetakoa dela esan ohi dugu, eta horrela izaten jarraitzen dugu. Eus-

karak bizi eta sendo segitzen du gure herrian. Hala ere, beti dugu gehiago egiterik eta Euskaraldiak erakutsi digu. Horregatik, herritar guztiak animatu nahiko nituzke Euskaraldia luzatzera, eta aurrerantzean ere euskara izan dadila lehentasuna. Euskarak izan behar du gure gizartea kohesionatzeko tresna etorkizunean ere", adierazi du.

"AZPEITIA BERE TAMAINAKO HERRIRIK EUSKALDUNENETAKOA DELA ESAN OHI DUGU, ETA HORRELA IZATEN JARRAITZEN DUGU. HALA ERE, EZ DA NAHIKOA, BETI DUGU GEHIAGO EGITERIK"

Hona hemen Euskaraldiak Azpeitian utzi dituen datuak:

Denera: 2.814 PERTSONA

2.663 (%94,6)

151 (%5,4)

Generoa:

Emakumeak: **1.752 (%62,3)**

Gizonak: **1.062 (%37,7)**

Adina:

16-25: **526 (%18,7)**

26-40: **872 (%31)**

41-50: **638 (%22,7)**

51-65: **564 (%20)**

+65: **214 (%7,6)**

ERRONKEI AUZOZ AUZO ERANTZUTEN



Lasaon, Aratz-Errekan, Matxinbentan, Elosiagan, Nuarben eta Urrestillan izan dira, azken hila-beteotan, udal ordezkariak urteroko ohiturari jarraituz. Landa eremuko auzoen berezitasunak ezagun dituzte eta auzoetako bizi kalitatea hobetzeko dute helburu. Bilerek eman dute-narekin "gustura" dira Josu Labaka eta Aitor Bereziartua zinegotziak.

Herriko proiektuak zein izango diren zehaztean zein horiek garatzerako orduan ezinbestekoak dira herritarrek Udalarentzat: "Obra txikiak, proiektu handiak... guretzat ezinbestekoa da herritarren elkarlanetik abiatzea, eta denon artean adostutako hori egitea. Hori izango baita herriarentzako egokiena. Parte hartzea Udalaren DNAn txertatuta dugu, eta proiektu ia guztiak eragileekin, auzotarrekin edo dago-

kionarekin adostuta egiten ditugula esango nuke", adierazi du Labaka Zerbitzu Orokorretako eta Parte hartzeko zinegotziak.

**"AZKEN URTEOTAN
EGIN DITUGUN KONTUEN
BALANTZEA EGIN DUGU ETA
AURRERA BEGIRA AUZO BAKOITZEAN
EGITEKO GELDITZEN ZAIGUNAZ
ERE ARITU GARA"**

Auzoetan ere berdin gertatzen da. Urtero auzoetara joan ohi dira udal ordezkariak egindakoaren inguruko errepasoa egin, eta aurrera begirako erronkak zehaztera: "Auzoak bereziak dira. Landa eremuko auzoe-

tako hainbat zailtasun berdinak dira, baina beste asko auzo horri erabat lotutakoak dira. Horregatik gustatzen zaigu auzora joan, bertakoekin egon, hitz egin... eta hobetu beharrekoa zehaztea", jarraitu du Bereziartua Hirigintza zinegotziak.

Lasaon, Aratz-Errekan, Matxinbentan, Elosiagan, Nuarben eta Urrestillan egin diren bilerak "oso ondo" joan direla agertu dute: "Azken urteotan egin ditugun kontuen balantzea egin dugu eta aurrera begira auzo bakoitzean egiteko gelditzen zaigunaz ere aritu gara", zehaztu du Bereziartuak. "Auzoetako herritarren bizia erraztu eta bizi kalitatean eragiteko proiektuak lantzen dira gehienbat, eta azken urteotan aukera izan dugun arazoei irtenbidea aurkitzen saiatu gara", gaineratu du Labakak.



HERRIKO TALDE ETA ERAGILEEN BALIOAK AZTERTU DIRA

AZPEITIKO 52 ERAGILEK GALDETEGIA BETE DUTE GARATZEN DITUZTEN PROIEKTUETAN ETA JARDUERETAN ZEIN BALIO SUSTATZEN DITUZTEN EZAGUTZEKO



Azpeitiko Udalak balioen inguruko diagnostikoa egitea erabaki du; herriko eragileek egun garatzen dituzten proiektuetan eta jardueretan zein balio sustatzen dituzten identifikatzeko, indarguneak eta ahulguneak ezagutzeko; eta etorkizunera begira, herri bezala sustatu nahi dituzten balioak elkarlanean adostu eta lan-ildoak zehazteko.

Diagnostikoa eginda, abenduen 1ean azterketaren berri eman, eta ondorioak egiaztatu eta aurrera begirako erronkak zehazteko jardunaldia egin zen udaletxeko bosgarren solairuan. "Iazko maiatzean herri hezitzaileen inguruan egindako jardunaldietan ondorioztatu genuen diagnostikoa egiteko beharra zegoela", adierazi du Leire Goenaga zinegotziak, "ikusi genuen, oro har, heziketaren ardura eskolaren gain uzten dugula, baina, berez, ardura hori guztiona dela, nor-

banako edo talde bateko parte garen heinean".

Hezkuntza arautuan aritzen diren hezitzaileek zein herriko beste eragileetan aritzen direnek, guztiek ikusi zuten beharra zegoela herriko egoera zein den aztertzeke eta diagnostiko zehatz bat egiteko, bakoitzak zer ekarpen egiten duen jakiteko eta aurrera begira elkarlanerako oinarriak ezartzeko.


"IKUSI GENUEN, ORO HAR, HEZIKETAREN ARDURA ESKOLAREN GAIN UZTEN DUGULA, BAINA BEREZ, ARDURA HORI DENONA DA, NORBANAKO EDO TALDE BATEKO PARTE GAREN HEINEAN"



Hala, azterketa egin ahal izateko, batetik, herriko elkarte, talde eta eragile desberdinei galdetegi bat betetzeko eskatu zaie eta bestetik, udaleko teknikari eta arduradun politiko batzuei elkarriketak egin zaizkie. Guztira, 52 eragilek bete dute galdetegia eta hamar teknikariri eta zazpi hautetsiri egin zaizkie elkarriketak.


Hona hemen diagnostikoak eman dituen ondorio nagusiak;

ERAGILEEK ANTOLATZEN DITUZTEN EKINTZETAN KONTUAN IZATEN DITUZTEN IRIZPIDEAK:



Herritarren partaidetza aktiboa eta euskara sustatzea 33 taldek (%63) aipatu dute. Horien atzetik talde gutxiagok aipatu dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea (26 taldek -%50-), umeentzako egokia izatea (25 taldek), eta bertako ohitura eta ondarea mantendu eta zaintzea (23 taldek).

TALDEEK, BARRURA BEGIRA, AINTZAT HARTZEN DITUZTEN BALIOAK:



Herritarren partaidetza edo ahalduntzea 39 taldek (%75) aipatu dute. Euskararen sustapena 31 taldek (%60) eta aniztasuna eta integratzea, eta pakekidetasuna 29 taldek (%56). Horien atzetik egongo lirateke herriko kultur ondarea ezagutzea eta zaintzea (25 taldek), eta jasangarritasuna, ingurumena zaintzea edota kontsumo arduratsua; eta sormena eta berrikuntza (21 taldek).



LAPATX ZABORTEGIA BEHIN BETIKO IXTEKO PAUSOAK EMAN DIRA

LIXIBATU ETA ETA METANO GASAK SAIHESTEKO, NEURRI DESBERDINAK HARTU DIRA

Lapatx Zabortegeiak 2016ko azaroaren 30ean itxi zituen ateak. "Itxiko gurela esan gurena, eta gaur da itxiko dugun eguna. Hitz eman genien herritarrei, eta hitza beteko dugu. Baina hilabete guzti hauetako lana ez da erraza izan. Interes, zailtasun eta oztopo askoko gaia baita hondakinena gaurko Gipuzkoan", adierazi zuen egun horretan Aitor Bereziartuak, Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakari eta Azpeitiko Udaleko alkateordeak.

Izan ere, Lapatx 1988 urtean zabaldu zen eta garaiko aurreikuspenen arabera, 20 urterako izango zen. Beraz, 2008an itxi beharko zen

zabortegeiak bere jardura egiten jarraitu zuen. Bi itxiera data ere izan zituen, 2009 eta 2014 urteak hain zuzen ere, "baina ez ziren bete".

"INGURU HONEK BESTELAKO ITXURA IZAN DEZAN EGINGO DUGU LAN DATOZEN HILABETEETAN ETA URTEETAN"

"Uste dugu 28 urte nahikoak eta gehiegi direla Azpeitiko, Errezilgo eta

Bidania-Goiazko herritarrentzat etxe ondoan zabortege bat izateko", esan zuen Bereziartuak itxierako egunean.

Lapatxeko atea itxi ondoren ere, lan andana izango zela ere iragarri zuen Mankomunitateko lehendakariak: "Lapatxeko inguru guzti honek urte luzeak beharko baditu ere bere onera etorri eta bestelako itxura bat izateko, horretarako neurriak hartzen hasteko arora heldu gara, eta horri helduko diogu gogoz. Inguru honek bestelako itxura izan dezan egingo dugu lan datozen hilabete eta urteetan". Eta ordudanik zabortegeia ixteko beharrezkoak diren pausoak ematen jarraitzen du Udalak.



USAINAK SAIHESTEKO, NEURRIAK

Zabortegeiko jardura amaituta, kutsadurak jarraitu egiten zuen Lapatxen, lixibatu eta metano gasak, adibidez. Hori saihesteko, behin-behineko neurriak hartu zituen Mankomunitateak. Hondakinak batzen ziren lur eremuan estaldura jarri zen 2017 urtean, modu honetan, euri urak lixibatu bihurtzea saihesteko eta metano gasak atmosferara zuzenean isuri ez zitezen.

Bestetik, Garbigunearen kudeaketa hobetzeko neurriak ere hartu ziren, "herritarrei zerbitzu zabalagoa modu egokiagoan eskaintzeko.

ZIGILATZE PROZESUA, ABIAN

Ateak itxi ondoren, Lapatx behin betiko itxi nahi da. Hau da, zabortegeia berriro ez erabiltzea inoiz. Horretarako, zigilatze lanetarako baimenak lortzeko kudeaketa lanetan aritu da Mankomunitatea azken urte hauetan. Baimenak lortuta, orain urtebete hasi zen Lapatx zabortegeia zigilatze prozesua. Prozesu honek 6

fase izango ditu guztira, 4-5 urtean bukatuko dutela aurreikusten dute ordezkariak, zabortegeia izandako azken eremuko lurrik epe hori behar baitute egonkortzeko. "Sei fasetan zigilatzea aurreikusia dugu. Lehen fasearekin bukatzea goaz eta, dena aurreikusi bezala joaten bada, 2021 urtean zabortegeiaren azken eremuko lurra egonkortuta izango da eta hori zigilatuta bukatuko da Lapatxen itxiera", zehaztu du Bereziartua zinegotziak.

"ZABORTEGIA IXTEA PROZESU LUZEA DA. ZABORRAK BOTA ZIREN AZKEN EREMUAK 4-5 URTE BEHAR DITU EGONKORTZEKO, ETA BITARTEAN BEHIN BEHINEKO SOLUZIOA EMAN DIOGU"

Lehen fasea beraz, Gabonetan bukatuta egongo da. "Itxi gurenetik haxe lortu arte ez dugu etsi. Guk

zabortegeia ixteaz gain klausuratzea nahi dugu, berriro hemen zabortegeia izateko tentaziorik ez dezan izan inork. Azkenean lortu dugu, eta urte luzeetako eta fasekako prozesua izango bada ere, ibilbidea hasi dugu", azaldu du Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakariak.

Mankomunitateak eta obrak egiten ari den Moyua enpresak sinatutako kontratuaren arabera, lehen fase honetan, gaur egun organikoaren tratamendurako dagoen plantaren ondoko eremua klausuratuko da, 10.500 metro koadro inguru, eta 737.739,50 (+BEZ) euroko aurrekontua du.

Klausura guztiaren prozesua luzea izango dela aurreratu du Bereziartua zinegotziak: "Zabortegeia ixtea prozesu luzea da. Zaborrak bota ziren azken eremuak 4-5 urte behar ditu egonkortzeko, eta bitartean behin behineko soluzioa eman diogu gas eta lixibatuak arazorik sor ez dezaaten. Plastiko beltzez estalia dugu.", adierazi du.



GARBIKETARAKO PROTOTIPO BERRIAK

Lapatxen klausura abian jarrita, bertan bildutako biometanoa garbitu eta sare nagusira txertatzeko proiektu pilotu bat abian da: "Gustura gaude Lapatxek hartu duen norabide berriarekin. Urte luzez zabortege izan den gune honetatik zerbait positiboa lortu nahi dugu, eta energia berriztagarrien proiektuak eta klausurak indarrak eman dizkigu lanean segitzeko", gaineratu du Bereziartuak.

Izan ere, energia alorrean duen potentzialitatearen jabe izanik, energia berrerrabiltzeko eta Lapatx hondakinen rebalorizaziorako zentru bilaka-

tzeko apustua egin da. Hala, bertan sortzen den biometanoa berrerrabiltz energia berriztagarriak sortu eta sare nagusira bideratzeko proiektu batean sartu da urte honetan.

**ENERGIA BERRERABILTZEKO
ETA LAPATX HONDAKINEN
REBALORIZAZIORAKO ZENTRU
BILAKATZEKO APUSTUA EGIN DA**

"Energia berriztagarrien aldeko apustu sendoa egiten dugu guk. Orain, zabortegean sortzen den biometanoa erre egiten dugu, eta helburua da gas hori erabiltzea lortzea. Proiektu interesgarria iruditzen zaigu eta non hobe horrelako prototipo bat Lapatxen baino", azaldu du Aitor Bereziartua Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak. Izan ere, biometanoa energia berde edo berriztagarri gisa indarra hartzen ari da Europan zein munduan. Europako Batasunak biogasa indartu nahi du alternatiba moldagarri eta jasangarria delako eta negutegi efektua eragiten duten gasen emisioa murrizten laguntzen delako.

Nortegas enpresak egin du gasa garbitu eta gas natural berriztagarria sortu eta sare nagusira bideratzeko prototipoa. Uztailaren hasierarako prototipoa Lapatxen zegoen eta ordudanik, elkarlanean proba desberdinak egin dituzte gasa ahalik eta ondoen garbitzeko: "Biometanoa ahalik eta ondoen aprobetxatzeko teknologiarik eta modurik onena bilatzea da helburua, ondoren sare nagusira txertatzeko. Horretarako dauden kalitate neurri guztiak pasatu ondoren", gaineratu du Bereziartuak.

**UZTAILAREN HASIERARAKO
PROTOTIPOA LAPATXEN ZEGOEN
ETA ORDUDANIK, ELKARLANEAN
PROBA DESBERDINAK EGIN
DITUZTE GASA AHALIK ETA
ONDOEN GARBITZEKO**

PROIEKTU SARITUA

Lapatx zabortegean abiatu den proiektu berritzaileak hasiera oso ona izan du. Izan ere International Gas Union (IGU)-ek ematen dituen sarien artean, 'Gasa eta berriztagarriak' sailean berrikuntza saria eskuratu berri du.

Nortegas enpresako ordezkariak ekainaren bukaeran jaso zuten saria, Washingtonen (AEB) egin zen ekitaldian.



INGURUMENARI LOTUTAKO PROIEKTU BERRITZAILE DESBERDINAK ABIAN JARRI DITU UDALAK

Arazketa sistema naturala, geotermia bidezko berogailua edota plaka fotovoltaikoak ezarri dira herriko gunes desberdinetan.

Lapatx gunearen garbiketarako abian jarritako proiektua ez da energia berriztagarrien alde egindako apustu bakarra. Azpeitiko Udalak ingurumenari lotutako beste hainbat proiektu berritzaile ditu martxan herrian.

1.- XOXOTeko ATERPETXeko UR ZIKINAK GARBITZEKO ARAZTEGI PROTOTIPO NATURAL ETA EKOLOGIKOA JARRI DA.

Xoxoteko aterpetxeko ur zikinak garbitzeko arazketa sistema natural honekin, prozesu biologikoen eta fisiko-kimikoen bidez hondakin-uretan dauden elementu kutsagarriak murriztu edota desagertzea lortzen da.

Aterpetxearen behealdean bi araztegi txiki jarri dira. Ura lehenik araztegi batetik pasatzen da garbitzeko, eta ondoren bestetik. Beraz, bi tratamendu jasotzen ditu. Bi araztegietak landareriak eta faunen bidez ura garbituz joaten da. Ura sarreran eta irteeraren neurtzen dute, eta jarri dutenetik bi hilean behin egindako neurketen arabera %99ko errendimendua du. Araztegiak arduradunen arabera, efizientzia handia da hori.

Aterpetxeko ur putzu beltza zahartuta eta hondatuta zegoen, eta ingurune natural eta babestua izanik, toki aproposa iruditu zitzaion Udalari probarako: "Iaz herriko enpresen egoera eta esku artean zituzten proiektuak ezagutzeko aukera izan genuen. Horien artean bultzatu ahal genituen zenbait ezagutu eta aztertu ditugu eta horietako bat da Kimu Bateko hau. Proiektu horren asmoa eta helburua gustatu zitzaizkigun eta Xoxoten jartzea aztertzen hasi ginen Lagun Onak Mendi Bazkunarekin hitz egin ostean", adierazi du Josu Labaka zinegotziak.



2.- GEOTERMIA SISTEMA EKOETXEAN

Azpeitiko Ekoetxean berogailu sistema zaharkituta geratu zen eta aldatzeko unea iritsi zenean, proiektu berritzaile baten aldeko apustua egin zuten. Hala, geotermia bidezko berogailua ezarri dute.

Proiektuaren prozesua lur azpian 40 metro tara kokatzen den putzu batetan oinarritzen da. Putzuko ur bero horiek bi bero-ponpen bidez kontrolatzen dira. Energia kontsumo berriztagarria eta jasangarria izateaz gain, sistema berriak, Ekoetxeako gunes desberdinak hozteko aukera ere eskaintzen du. Guztia, ekipamendu berdina erabiliz eta kostu ekonomiko gehigarririk gabe.

Geotermia sistemaren datuak:

Azalera klimatizatua: 320 metro karratu

Sistemaren potentzia: Berogailua 13,5 kW / Hozkailua 11,2 kW

Aurrezki ekonomikoa: urtean 4.270 euro (%78a)

Saihestutako CO₂-a isurketak: %79a

Lehengai-energiaren murrizketa: 64 MWh urteko (%79a)



3.- PLAKA FOTOVOLTAIKOAK IGERILEKUAN

Igerilekuan energia-eraginkortasuna hobetzeko obra garrantzitsuak amaitu dira. Hala, paretak isolatzeko eta igerilekuko beroa ez galtzeko material bereziak jarri dituzte. Horiez gain, eraikinaren teilatuan plaka fotovol-

taikoak ezarri dituzte. Hartutako neurriekin, galtzen zen energia %26,7an gutxituko da, eta kontsumitzen zen energia, berriz, %11,5ean. Urtean, 266.500 kWh aurrezteko espero du Udalak.

Lanen aurrekontuari dagokionez,

eraikina isolatzeko hormetan jarri duten materiala eta plaka fotovoltaikoak 1.000.000 euroko inbertsioa izan da. Material horien bizi itxaropena 25 urtetik 40 urtera artekoa da, eta hamaika urteren buruan egindako inbertsioak amortizatzea aurreikusten dute.

MUGIKORTASUNEAN ERE, ENERGIA GARBIA ALDE



Egunerokotasunean ibilgailu pribatuak gehiegi erabiltzen ditugu. Erabilera horrek ingurumenean eragiten dituen ondorioak oso kaltegarriak dira, horregatik, Azpeitiko Udalak egoerari itzulita eman nahi dio, bestelako energia eredu baten aldeko apustua eginez. Pauso txikiak izanagatik ere, eragina handia izan daiteke-elako.

Hala, Energia Plana osatu zuen eta energiaren kontsumo ardurasuagoa eta jasangarriagoa egiteko asmoz, eta neurri desberdinak hartu ditu azken hilabeteetan. Horien artean kokatzen da Udaltzaingorako bi kotxe elektriko erosi izana. "Kotxe elektrikoa erostearen alde egin dugu, horrelako kotxeak gasolinarik ez gastatzeaz gain, CO2 isuriak nabarmen gutxiago isurtzen

dituztelako airera", azaldu du Aitor Bereziartua zinegotziak.

**BI AUTO ELEKTRIKOEN
EMAITZAK IKUSIRIK, UDAL
ORDEZKARIEK BALORAZIO OSO
POSITIBOA EGIN DUTE ETA AUERRERA
BEGIRA, PAUSO GEHIAGO EMANGO
DITUZTELA AUERRERATU DUTE**

Bi autoen emaitzak ikusirik, Udal ordezkariak balorazio oso positiboa egin dute eta aurrera begira, pauso gehiago emango dituztela aurreratu dute: "Etorkizunean, erabat burujabe den auto elektrikoa izatea nahi dugu. Hau da, eguzki

plaka bidez energia geuk sortu eta horrela autoak bere egunerokoa egitea lortzea dugu helburu", adierazi du Bereziartuak. Gainera, auto elektrikoak kargatzeko postea ezarri dira: Azoka Plaza atzean bat eta igerileku ondoan bestea. Igerilekuko kargatzeko puntua oraindik ez da abian jarri, baina laster izango da herritarren zerbitzura.

Mugikortasuneko proiektuekin jarraituz, ezin aipatu gabe utzi La-saora eta Urrestillara doazen bidegorriak. Izan ere, Udalak argi du bidegorriak etorkizuneko apustuak izan behar direla, osasuntsuak direlako eta herriak konektatzeko balio dutelako. Urrestillako bidearen lanak aurtengo hasi dira eta amaitutakoan, barruko zein kanpoko bidegorri sare handiena izango dugu Azpeitian.



ENERGIA KONTSUMOA JAISTEKO NEURRIAK HARTU DITU UDALAK

Azpeitiko Udala energiaren kontsumoa murriztu eta energia berriztagarriak erabiltzeko bidean, neurri desberdinak hartzen ari da azken urteotan. Hala, 2016an Usurbilgo Lanbide Eskolarekin hitzarmena sinatu zuen eta zentro horretako profesionalen aholkularitza jasotzen du energiaren arloko proiektuetan. Besteak beste, igerilekuko energiaren kontsumoa eraldatzeko erronkan eta kotxe elektrikoaren erosketan aholkularitza eman dute. "Energiaren kontsumoa eta energia berriztagarrien mundua zabala da, eta herrian egokienak diren aukerak aztertu eta abian jartzeko ezinbestekoa izan da guretzat Usurbilgo Lanbide Eskolako aholkularitza", adierazi du Aitor Bereziartua Ingurumen zinegotziak.

Aholkularitza horretaz gain, Udalak energiaren inguruko informazio eta kudeaketa lanetarako, urtero kontsumoaren inguruko txosten bat egiten du. Horrek, urtez urte emandako pausoen inguruko ebaluazio moduko bat egin, eta hartutako neurrien eraginkortasuna ikusteko balio du. Horretarako azpiegituren

energia kontsumoaren inguruko fakturak aztertzen dira. 2017ko txostenean, adibidez, 61 azpiegituren kontsumoa aztertu zen; guztira 632.390 eurotako kontsumo gastua izan zuten; 2015etik gastua gutxitzen doa, eta 2015-2017 artean, 150.000 euro inguru jaitsi da energiaren kostua. 2016tik 2017ra, %5,3 jaitsi zen kontsumoa, eta gastua, berriz %8. Gasen emisioa ere urtez urte jasiten ari da hartutako neurrien ondorioz, hala hiru urtez jarraian jaitsi da; 2017an, adibidez, %8,2 jaitsi zen.

**UDAL AZPIEGITUREN ARTEAN,
GASTU HANDIENA IGERILEKUAK
DU, ETA HORREN KONTSUMOA
JAISTEKO NEURRI DESBERDINAK
HARTU DITU UDALAK**

Udal azpiegituren artean, gastu handiena igerilekuak du, eta horren kontsumoa jaisteko neurri desber-

dinak hartu ditu Udalak. 2014an, adibidez, geotermia instalazioa egin eta Barrenetxeko ur iturburuko ur beroa aprobetxatzeko proiektu berritzailea egin zen. Igerilekuak, 2014an, 1.934.354 kWhko kontsumoa zuen, 2016an 1.709.345ekoa eta 2017an 1.699.686 kWhkoa. "2014an hasitako obra haien emaitzak 2016an, eta 2017an izan dute isla", zehaztu du Bereziartuak. Herriko azpiegituren kontsumoa ere jaitsi da orokorrean; 2014an, 6.122.721 kWh-ekoa zen kontsumoa, eta 2017an, 5.386.003 kWhkoa.

FAROLEN ALDAKETA

Led argiztapena herrian zabaltzeko, eta Europako araudira egokitzeko, pixkanaka-pixkanaka herriko argiteria aldatzen ari da Udala, azken lau urtean. Hala, aurtengo argiztapenak aldatuko ditu, herriko 6 eremutan. Hainbat puntutan farola zaharrak daudelako guztia aldatuko da, baina beste zenbaitetan argiztapena soilik egokitu da. Neurri honekin ere energiaren kontsumoa murriztea da helburua.



*Gabon Zoriontsuak eta
Urte Berri On
2019*